

«Literatura unibertsala. Ibilitakotik ibiltzekora» solasaldia

ANGEL ERRO, IRATI JIMENEZ ETA MANU LÓPEZ GASENI

2022ko maiatzaren 29an, «Literatura unibertsala. Ibilitakotik ibiltzekora» mahai-ingurua antolatu zuen EIZIEk, Literaturia jaialdian, eta Irati Jimenezek eta Angel Errok parte hartu zuten, Manu López Gaseni gidari zutela. Han esandakoak bildu ditugu orriotan.

MANU LÓPEZ GASENI: Ongi etorri guztioi. Hona gonbidatu ditugun lagunak aurkeztuko dizkizuet, hasteko. Iratik hainbat eleberridatzi eta argitaratu ditu, ipuinen bat ere bai, eta literatura-saiakera batzuk, horietarik batiaz plazaratua –oihartzun handiz, esan behar da—. Angel, berriz, poeta da, orain arte bi bildumaren egile; eguneroko bat ere argitaratu zuen, *Lerro etena*, eta literatura-kritika landu zuen, *Volgako batelariak* blogean (ez dakit bizirik dagoen oraindik). Eguneroko zutabea du *Berria* egunkarian.

Solasaldia bere testuinguruan jartzeko, gogorazi behar da Literatura Unibertsala bilduma 1990ean abiatu zela, gerora «lehen aroa» deituko genion harekin, 100 titulurekin: lehena *Gulliverren bidaiak* eta azkena *Hamlet*. Gero, bigarren aroko 52 itzulpenak plazaratu ziren, 2002-2010 artean. Bi urteko parentesitxo bat egon zen, eta 2012an

abiatu zen hirugarren aroa. Horrenbestez, aurtengoa 20. urteurrena genuke. Hirugarren aroan, 32 itzulpen argitaratu dira orain arte. Gainera, lehen aroko 100 titulu haietatik 20 Urrezko Biblioteka bilduman atera dira, orraztuak, zuzenduak eta eguneratuak. Guztira, 32 urte, eta 184 titulu. Askotarikoak, izen handiko egile askorenak, eskarmentu handiko itzultzaileei zein hasiberriei baldintza beretan esleituak, itzulpenlehiaketa bidez, eta ausartuko nintzateke esatera emaitzak kalitate handiko obrak direla. Ez dakit horren frogagarri den, baina titulu horietatik guztietatik 16k jaso dute Euskadi Saria, eta, azkeneko 20 deialdietan, 13k. Datu horiek eta askoz gehiago EIZIEn webgunean dituzue eskuragarri.

Baina, datu huts eta hotzetatik harago, bildumak eragin dituen aldaketen berri jakin nahi genuke. Tankera askotako aldaketak:

pertsonalak, literarioak, soziologikoak... Planteatu nahi dizuedan lehen galdera da zein izan den Literatura Unibertsala bildumarekin duzuen edo izan duzuen harreman pertsonala.

IRATI JIMENEZ: Nik irakurle bezala dut harremana bildumarekin. Horretaz aparte –uste dut horregatik nagoela gaur hemen–, duela hilabete batzuk EIZIEn deia jaso nuen, batzorde batean parte hartzeko. Seriotasun handiz egiten da bilduma, eta esango nuke kudeatzen duzuenok kolektibitate edo herri batentzat ari zaretela. Literatura unibertsalaren apalategitik ari zarete obra batzuk hautatzen eta itzultzen, eta hori gauza handia da. Seriotasun horren baitan, batzorde horrek erabaki behar zuen zer titulu berrirekin osatu edo nola zabaldu duela urte batzuk eginda zegoen itzulgaien zerrenda, gero erabakitzeko urtez urte zer liburu aterako diren plazara itzultzaile bila, betiere lortzen bada baldintzak betetzen dituen itzultzaile bat.

Lan horretarako deitu ninduen elkarteak, batzorde horretan neuk ere neure iritzia emateko, eta, egia esan, oso lan interesgarria izan da; oso ondo pentsatutako emaitza ateratu da. Taldekide bakoitzaren irizpideak desberdinak izanik hasieratik, topatu dudana izan da talde bat galdera pertinentek zituen buruan, ez direnak erantzuten errazak. Zer hobetsiko dugu, oso ezagunak diren eta denon buruan diren obra unibertsalak? Horiek, beharbada, jada irakurriagoak dira, akaso gaztelaniaz ezagutzen dira; nola hartuko dugu kontuan kritika deskolonizatzaileak mahai gainean jarri dituen irizpide benetan inportanteak, nola aplikatuko di-

tugu? Ez dugu gehiegi joko frantsesera eta ingelesera, nahiz eta gure itzultzaile gehienek hizkuntza horiek ezagutzen dituzten gehien?... Oso interesgarria izan da jendea lanean ikustea, eta uste dut denok gustura geratu garela. Hala pentsatu nahi dut.

ANGEL ERRO: Nik, berriz, irakurle arruntaren harremana izan dut bildumarekin. Irakurle euskaldunberri arruntarena. Alegia, 17 urterekin hasi nintzen euskara ikasten, eta ondo irakurtzeko moduan handik lau bat urtera egongo nintzen. Beraz, euskaraz behar bezala eta fundamentuz irakurtzen hasi nintzenerako, seguruenik nire gustu literarioak itxita zeuden. Irakurriak nituen literatura unibertsaleko gauza batzuk, beste batzuk ez... Euskal literaturaren zerean sartzen zara, eta, plater nagusia euskaraz sortutako lanak diren arren, hor duzu beste bandeja bat, dotorea, eskaintza polit bat: euskarara itzultitako literaturarena.

Gero, gainera, uste duzu gustua formatua duzula lehenagotik, baina konturatzen zara hizkuntza berri horretan –euskaraz, alegia– egiten ahal dituzula deskubrimendu batzuk. Literatura unibertsalaren hainbat egile euskaraz irakurri ditut lehen aldiz. Lotsa ematen dit batzuk aitortzeak: Jane Austen, esaterako, Ana Isabel Moralesen itzulpen polit horretan leitu nuen lehenengoz. Gero, Filologia egin nuen, irakasleek gomendaturik irakurtzen nituen titulu batzuk, eta konturatzen zara itzulpen batzuk gaztelaniazko itzulpenen maila berean egon daitezkeela edo hobeak izan daitezkeela. Behin baino gehiagotan aipatzen ziguten eskoletan Marguerite Durasen *Maitalea*, Mikel Garmendiak itzulia. Edo hizkuntza-

ren plazera deskubritzen duzu lehenagotik ezagutzen zenituen lan batzuekin. Irakurria nuen *Hamlet*, eta maite nuen gaztelaniaz, baina euskaraz irakurtzea beste esperientzia bat da, hirugarren dimentsio batera eramaten zaitu, ez zara *Hamlet* irakurtzen ari, beste zerbaite da, euskaraz bakarrik lor dezakezun plazera ematen dizuna. Bestetik, plazer iraunkorra eman izan dit EIZIEren bildumak, ze, normalean, editoreak –espero dut inor ez egotea hemen– oso zuhurak dira tituluak aurreratzen. Normalean ez da jakiten zer ekarriko duten hurrena. Garai batean Juan Luis Zabalak egiten zituen erreportajeak oso irakurriak izaten ziren. Horren aldean, esleipenak ateratzen direnean-eta jakitea hemendik denbora batera halako liburua aterako dela... Gogokoren bat izanez gero, ilusioa egiten dit (Sciasciaren *Todo Modorekin* gertatu zitzaidan iaz, adibidez).

IRATI: Nik ez dakit frantsesez, adibidez, baina *Hadrianoren oroitzapenak* irakurri nuen, Julio Cortázarrek itzulita, eta gero Joxe Austin Arrietaren itzulpen miragarria, eta orduan konprenitu nuen benetan Cortázarrek ez duela asmatzen Yourcenarrek egiten duena egiten; alegia, modu batera irakurtzera behartzen zaitu, astiroago irakurtzera. Zetazko prosa ia narkotizantea dauka, eta hordigarria. Eta euskarazkoak ere lortzen du hori. Halako fenomeno magiko batzuk gertatzen dira itzulpengintzarekin.

MANU: Esan daiteke bilduma zuek nerabe zinetela jaio zela. Eta bildumarekin batera hazi zaretela, ezta? Bada, goazen beste gai batekin. Oraingoan, irakurleena. Zu, Irati, institutueta ibiltzen zara, bisitak egiten,

eta zu, berriz, Angel, irakurle-klub bateko koordinatzaile zara. Ezagutzen dituzue irakurleak. Orduan, jakin nahi nuke zer jende motak irakurtzen dituen bildumako tituluak. Zerk bultzatzen dituen liburu horiek irakurtzera, zer adin-tartetan irakurtzen diren (ez denak). Kontadazue.

ANGEL: Bakoitzak adin-tarte desberdin batez hitz egin beharko du. Irati gaztetxoekin egoten da, eta, ni, berriz, bigarren gaztaroan daudenekin. Eta genero jakin batekoak etortzen dira klubera gehienbat; ez dago esan beharrik zeinetakoak. Bitxia da. Oro har, uste dut euskal irakurleek ez dituztela pasioz hartzen itzulpenak. Hori ikusten da Kritiken Hemerrotekan ere. Itzulpen batzuk ez dira iristen kritika bakar bat edukitzera ere, eta hori oso tristea da.

Irakurle-klub batean baino gehiagotan ibiltzen naiz azkenaldian, eta orain dela gutxi gidariok zirkular bat jaso genuen, Nafarroako Liburutegien Sareko liburuak erosteko eskatzeko iradokizunak eskainiz. Zer liburu erosi hurrengo ikasturterako. Irakurle-kluben boom handi samarra dago, eta Nafarroan, gainera, euskarazko klub dezente hasi dira 2016tik hona, esango nuke, gobernu-aldaketekin. Bada, zirkular horretan, gomendio batzuk egiten zizkiguten. Hemen ditut, gaztelaniaz. Adibidez: *que tuviese valor para todos los clubes; se recomienda que los títulos propuestos se hayan leído* –beti eskatzen da hori, zer eta sareko koordinatzailearen ahotik–; *se pueden recomendar novedades –es muy atractivo para el público de los clubes–*. Beste bat: *valorar los textos por sus méritos literarios* –hori ere eskertzen da, eta uste dut oso laburpen polita dela jarraian

datoren merituen deskripzioa, hau da: *que sigan teniendo valor pasado el tiempo*; bost hitzetan laburtua, hara. Beste bat: *conviene tener en cuenta los clásicos, procurando elegir los más amenos*. Eta *tener en cuenta críticas en periódicos y revistas especializadas*. Beste gomendio bat da liburuak ez izatea 500 orrialde baino gehiago; hori ondo dago, ze, hilibeteko epean irakurri behar dira, baina salbuespenak egoten ahal dira, oso liburu berezia baldin bada.

Eta ni harritu eta haserrearazi ninduen gomendioa da orain irakurriko dizuedan hau: *para los títulos en euskera, se prefieren ediciones originales, no traducidas*. Eta pentsatu nuen: eta zergatik hori euskarazkoentzat bakarrik? Uste dut erdal irakurleari ez zaiola arrotz gertatzen itzulpena, eta, neurri batean, zaku berean sartzan ditu Paul Auster eta Almudena Grandes. Guk ez dugu hala egiten. Konpartimentu bereziak ditugu. Baina hori ez da agindu bat; beharbada konstatazio bat da, eta ados egon beharko nuke, ze, gertatzen da hori irakurle-klubetan. Jendeak nahiago izaten du euskaraz sortutako zerbait, eta, gainera, jendeak inpresioa dauka gehiago ikasten ari dela, euskara hobetzen ari dela euskaraz sortutako zerbait irakurriz gero. Horrek ez du zentzurik, baina argi dago gauza batek ez duela bestea kentzen, edo ez lukeela kendu beharko. Dena den, ohitu ahala, badago jendea hasieran halako jarrera ezkorra izan dezakeena itzulitako liburuekin. Esate baterako, bilduma honetako *Finzi-Contintarren lorategiarekin*; hori jartzen baduzu lehenengo saioan, jendea uxatuko duzu, eta ez da itzuliko, baina, bigarren urtean jarriz gero, beharbada Bassani euskarari esker ezagutuko dute, lehenagotik

gaztelaniaz ezagutzen ez badute behintzat, eta hori polita da.

IRATI: Ni DBHko 4. mailako eta bereziki Batxilergoko 1. eta 2. mailetako ikasleekin ibiltzen naiz literaturari buruzko saioak egiten. Neure libururen bat irakurri dutelako izaten dira saioak, irakasleek ikastetxera joateko eskatuta. Eta hori izan da niretzat modu bat hain ahaztuak ditugun gaztetxoekin egoteko. Ez nator haien izenean hitz egitera, argi utzi nahiko nuke hori, baina gizartean literaturarekin dugun harremanaren oso sintomatikoa da haien egoera. Angelek esan duen bezala, alde batetik dibortzio handi bat egiten dugu literatura unibertsalaren eta nolabait geuk sortutakoaren artean. Esango nuke dibortzio hori gizartean orokorrean egiten dugula, eta beharbada gaztetxoengan argiago ikusten da; alegia, erdaraz irakurtzen dutenean –nahiz eta batzuk harrituko diren–, asko irakurtzen dute, eta modu suhartuan. Ikusiak ditut gaztetxoen ilarak Bilboko FNACi buelta ematen. Gaztetxoentzat sortutako literatura anglosaxoia, adibidez, nitxo zabala da, *Young Adult Fiction* deitzen diotena, eta baita ere literatura fantastikoa, literatura arrosa, komedia erromantikoak; zientzia-fikziozko literaturak badu esker oneko publiko bat... Eta ezagutzen ditut irakurle suhartuak gero idazle suhartu bilakatu direnak, eta asko irakurtzen dutenak.

Horrekin batera, justu beste muturrean, badira ez bakarrik irakurtzea asko gustatzen ez zaien nerabeak, baizik eta irakurtzeko desmotibatzen ditugun irakurleak. Bromatan esaten dudala dirudi, baina institutuko eduki kurrikularrek jendeari irakurtzea ez

gustatzeko eginak ematen dute. 16 urte-ekin José Cadalsoren *Cartas marruecas*, XV. mendeko teatroa, Ilustrazioaren garai-ko poesia espainola, eta *Tiempo de silencio*, edo Buero Vallejoren *El Tragaluz* irakurrita harrigarriagoa da irakurtzea gustatzea kon-trakoa baino.

Haur guztiei gustatzen zaie ipuinak enz-tzutea, baina irakurzaletasuna helduarora bizirik iristea gauza arraroa da, nahiz eta nire esperientzian irakasleek interes handia izan hori horrela ez izateko, eta benetan saiatu su horiek pizten edo bizirik mantentzen. As-kotan, galdetzen didate: zer gomendatuko zenieke ikasleei irakurtzeko? Oso galdera zaila da niretzat, eta haientzat ere erantzuna topatzea zaila izango dela pentsarazten dit. Pentsatzen dut alde horretatik asko dauka-gula egiteko gizarte bezala, ze, esan bezala, sintomatikoa dela uste dut. Gaztetxoek irakurtzen dituzte ingelesetik itzulitako li-buruak, esate baterako, eta euskaraz sortu-takoek kirrink egiten diete. Ez zaie okurritu ere egiten existitzen denik literatura uniber-tsal bat. Eta, institututik pasatu ondoren galdetuko bazenie zer iruditzen zaien Tols-toi edo Quevedo edo Cervantes, uste dut askok esango dutela literatura inportantea dela, baina ez dakitela zergatik –esan zaie inportantea dela, eta amen–, baina zalantza-rik gabe pentsatzen dute aspergarria dela eta irakurtzea ahalegin bat dela, obligazioz egin beharrekoa, eta hor ez dagoela ezer beren-tzat. Eta nik uste dut gizartean orokorrean pentsatzen dugula hori, eta ekibokatuta gaudela, eta hori dela aldatu behar duguna, geure literaturatik hasita.

Nik, adibidez, deskubritu nuenetik, behin baino gehiagotan irakurri ditut Axu-

larren *Geroren* zatiak. Liburu moral bat da, abade batek idatzia, jendea infernura ez joa-teko. Ni ez naiz kristaua; printzipioz, nire-tzat ez luke interesik izan beharko, ezpada euskararen aldetik, baina niri lagundu dit autolaguntza-liburu batek bezala (eta bada-kit hitz hori itsusia dela). Labur kontatze-arren: ez hain aspaldi, oso haserre nengoen pertsona batekin, eta uste dut haserre hori elikatzen ari nintzela neure barruan, esku-bide guztia neukala sentitzen nuelako. Axu-larri esker konturatu nintzen hori ez zela ona niretzat, eta zeintzuk ziren arriskuak. XVI. mendeko abade batek lagundu zidan hortik ateratzen. Beraz, uste dut literatura unibertsalari buruz daukagun buru-ordena-mendua aldatu behar dugula. Asko poztu nintzen jakin nuenean *Frankenstein* izan dela Literatura Unibertsala bilduman gehien irakurri den liburuetako bat, oso nobela ona delako, eta erakusten duelako gure arbasoak gure garaikideak direla.

MANU: Aurrera goaz, orduan. Literatura unibertsalaren hizkera literarioari buruz, ezinbestekoa da aipatzea Anjel Lertxundik hainbatetan plazaratu duen transferentzien eta eraginen kontu hori. Sormen-lanetan euskal itzultzaileek sortu dituzten hizkuntza-baliabideak eta literatura-baliabideak erabil-tzea, eta abar.

IRATI: Irakurtzea eta idaztea gauza bera dira, ez? Denontzat, maila batean. Idazlea esaten dudanean, idazle argitaratua esan nahi dut, ze, denok idazten dugu. Idaztea eta irakur-tzea ez dira bi ariketa desberdin. Behin, Harkaitz Canori galdetu zioten ea zer egiten zuen blokeatzen zenean, eta erantzun zuen ez zela blokeatzen, irakurri egiten zuela.

Idazle bezala irakurtzen duzunean, zeure buruaren parte bat ari da fijatzen zeintzuk izan diren idazleak topatu dituen soluzioak zeuk askotan izan dituzun problemenezat. Raymond Chandlerrek esaten zuen bera idazten hasi zenean beraren pertsonaiek ez zekitela gela batean sartzen eta kapela burutik kentzen. Nola esango duzu *se quitó el sombrero?* Ematen du ez dagoela idatzia, ia, eta askotan horixe da seguruenik soluziorik onena. Eta orduan konturatzen zara, «a, begira nola egin duen», eta hori bihurtzen da, nolabait, irakurtzearen plazeretako bat. Euskaraz sortu dugun idatzizko literatura, nahiz eta askotan uste dugun baino zabalagoa den, era berean mugatua da, edozein literaturarena bezala, eta gure soluzioetako asko beste hizkuntza batzuetan nola egin diren pentsatzetik etorri dira. Euskaraz sortutako lan asko era berean dira euskaraz sortutakoak eta itzulpenak. Joanes Etxeberri Sarakoak edo Axularrek idazten dutenean, latinetik itzultzen ari dira normalean, eta esango dute, adibidez, «San Agustinek esan zuen bezala», edo Isaias profetak –Bibliako zati bat–, eta orduan jarriko du latinez parte bat, eta gero hori euskarara ekartzen dute, eta, askotan –Axularrek esaten du–, ez hitzez hitz, baizik eta saiatu da euskararen beraren etorria eta beraren belarria errespetatuz idazten. Hori ere zor diogu Literatura Unibertsala bildumari. Ekarki hori ezinbestekoa izan da; niretzat, eta idazleentzat, esango nuke. Alegia, idazle asko dira idazle eta era berean itzultzaile. Euskal Herrian, asko. Angel bera da horren adibide. Eta pentsatzen dut pasatu izan zaiela esaten ari naizen hau: alegia, euren euskara ez datorrela soilik euskaraz sortutako testuak irakur-

tzetik. Lauaxeta itzultzaile-ariketak egiten ibili zen; Baudelaire itzuli zuen. Mikel Lasak Rimbaud itzuli zuen; Arestik nazioarteko hainbat poeta itzuli zituen, Kixoteren lehen kapituluak itzuli zituen; beraz, irakurri ditugun euskaraz sortutako lanak ere, *Harri eta herri* ere, literatura unibertsalitik datorren euskara batean idatzita dago, nahiz eta ezin bertokoagoa den euskara batean idatzia izan, baina literatura unibertsala irakurri duen idazle baten obra da. Hor topatzen dituen soluzioak pentsatzen dut gero oso baliagarriak egiten zaizkiola bere ariketa euskaraz egiteko.

ANGEL: Ohartuta nago euskal idazleei galdetzen zaienean zer irakurtzen ari diren, zer egile duten gogoko, izenak botatzea ekiditen dutela normalean. Eta, izenen bat botaz gero, beti izango da kanpoko norbait. Edo kanpoko egile baten liburu bat. Seguruen, gaztelaniaz irakurria, eta jende gutxik ezagutzen duen liburu bat. Eta esango du zer gauza bitxia den eta zer deskubrimendu egin duen eta... Pena da Literatura Unibertsala bildumako edo euskaratutako liburu bat ez aipatzea. Iratik esan du: hortik ikasi duelako, lan-tresna elikatu duelako. Benetan gustatzen bazaio, saiaturiko da bere hizkuntzara eta bere estilora ekartzen, eta itzulpen baten bidez egingo du, baina bakarka egin beharko du, ez beste norbaiten laguntzaz, eta itzultzaile trebatu baten laguntza oso gauza handia da. Ni, esate baterako, euskaraz sortzen dudanean, konturatuta nago arazo batzuk saihesten ditudala, saihezbideak bilatzen ditudala, erlatibozko esaldi gehiegi ez jartzeko, edo erlatibozko arraroak ez erabiltzeko... Horrek euskara-

ren ortzi-muga zabaltzen du. Ohitzen bazara euzkultura zailagoak eta esaldi luzeagoak erabiltzen, hizkeran ere nabaritu da. Ni ez naiz oso hizlari ona gaztelaniaz, eta euskaraz are gutxiago, baina batzuetan plazera ematen du norbait luze ari denean, esaldiak eta ideiak lotzen. Azkenean, pentsamendua hitzekin batera doa.

IRATI: Badago, baita ere, plazer hori... Ez da inori koipea ematearren, baina asko miresten dut itzulpenaren ariketa, eta askotan geratzen naiz harrিতuta itzultzaileak topatu dituen soluzioekin, bereziki poesian. Bat aipatzearren, Gerardo Markuletak egindako Blas de Oteroren poemak itzulpena irakurri eta ikustea jatorrizkoa beste hizkuntza batera nola eramaten duen, nola «imitatzen» duen... Hori oso ariketa zaila da niretzat, ez daukat nik hain belarri fina. Beste plazer mota bat hori izan da niretzat: Calderón de la Barca hartzea, adibidez, haren *La vida es sueño*, eta, orduan, itzulpena jotzea, itzultzaileak nola itzuli duen begiratzera. Batzuetan ikusiko duzu asko galtzen dela, baina beste batzuetan harritu egiten zara: nola egin den *Kixoteren* hasiera, nola *Cien años de soledad*en hasiera. Eta joko hori beharbada idazleontzat emozionanteagoa izango da modu profesionalean idazteko gogorik ez duen irakurleentzat baino. Ariketa hori sorpresiboa eta liluragarria da niretzat. Mailsulan horiek euskaraz sortuak izan zirela irudikatu ahal izatea.

MANU: Eta zuk zeuk zeureganatu duzu baliabide horietakoren bat?

IRATI: Bai. Esprikatzearren nola funtzionatzen duen irakurtzearen eta idaztearen pro-

zesu honek, esan nahi dut. Behin, irakurtzen ari nintzen *LA Confidential*—ezagutuko duzue beharbada pelikula—, James Elroyrena, eta nobela oso ondo idatzita dago eta oso interesgarria da, baina bazegoen sekuentzia bat... Tipo bat bere etxean dago, telebista ikusten, sofan, eta bi pistolero datoz tiro egitera. Bere burua defendatzen saiatzen da, eta eskura duen pistola bat hartzen du. Tiroketa hori deskribatzen du autoreak. Deskribatzen du zeuk kontatuko bazenu bezala, ez literaturalizatuta. Hori momentu miragarri bat izan zen niretzat, eta ez dakit ikasi dudan oraindik nola egiten den hori. Baina ikasi nuen bazegoela idazteko modu bat gertakariak bata bestearen atzetik kontatuta, beste gabe. Eta seguru nago beste horrenbeste ikasi dudala euskaraz irakurritako klasikoetatik. Harkaitz Canoren literatura, niretzat, alde batetik da berak idatzitako literatura, baina Hanif Kureishiren *Intimate* ere itzuli zuen, eta hor bazeuden soluzio batzuk, lortua zuen esaldi laburren eta luzeen arteko erritmo bat. Edo Oskar Aranaren *1984*. Nik, adibidez, liburu hori euskaraz bakarrik irakurri dut, eta nire nobela faboritoetako bat da. Orwell burura datorkidanean, euskaraz datorkit. Haren soluzio literario genial bat da, adibidez, torturari buruz nola hitz egiten duen Orwellek. Tortura deskribatu gabe torturaren terrorea nola konbokatzen duen liburu horren bukaeran. Hori nik euskaraz egiten ikasi dut. Beraz, zaila da esaten norberaren literatura nondik datorren, baina, zalantzarik gabe, hortik ere badator.

MANU: Hurrengo gaira pasatuko gara. Solasaldi honen izenburuko «literatura uniber-

tsala» hori minuskulaz idatzi dugu, nahita. Nola ikusten duzue bilduma honen bidez argitaratutako literaturaren eta ekimen pribatu bidez euskaratzen den literatura uni-bertsalaren arteko harremana? Uste duzue rolak banatu behar direla, harreman polita dela, badagoela harreman bat bien artean? Nola ikusten duzue kontua?

ANGEL: Nik uste dut berez rolak nahiko banatuta daudela. Hala behar du, ezta? Bilduma honetan, alde zurretik pentsatuta daude obrak, planifikatuta daude, eta egitasmo baten barruko izenburuak dira. Iniziatiba pribatutik datozenak beste gauza bat dira. Gazte-literaturan adibidez, sail oso bat atera daiteke; Harry Potterrena, adibidez, edo Elena Ferrante...

Begira, hori beharbada beste gai bat da, baina hori da argitaletxeek egiten duten gauza polit bat. EIZIEn bildumak ez du jarraikortasunik. Annie Ernauxi halako jarraipen bat egiten dio Igelak, eta irakurleak harrapatu ditzakezu horrela. Baina, bai, bi eremu desberdin dira. Eta tartean dago urteko Nobel saria euskaratzeko beka, horrek ekartzen dituelako euskaraz bestela seguruenik ikusiko ez genituzkeen liburuak, *Erabili goldea hilen hezurren gainetik*, adibidez; irakurtzea gustatzen zaion jendeak beharbada begiz joko zuen, baina bestela oharkabean pasatuko zen...

MANU: Beraz, uler daiteke zure hitzetatik bilduma hau ez dela komertziala?

ANGEL: Ez, ez. Esan nahi nuen ez duela irizpide bakar horrengatik mugitu behar, nahiz eta seguruenik publikatzen diren liburuetan irabaziek lagunduko duten, baina itzultzai-

leak ongi pagatzeko plaza bakanetarikoa da, euskaraz egon beharreko liburuak ekartzen dira. Gero, argitaletxe pribatuek ere aukera dezakete hortik jotzea ere. Txekhovena atera berri da orain, ezta? Liburu hori bilduma honetan ere egon liteke (beno, badago ipuin sorta bat). Ematen du behin itzultitakoa bitzita osorako itzulia dela, eta pena da, ze, atera liteke *Dama txakurduna*, adibidez, hobe-tua, eguneratua, bigarren bertsio batean; Iker Sanchok, berriz, egintzat eman du eta ez dio ekin...

Hau mirari bat da, liburu batzuk euskaraz existitzea. Nire liburu kutunetako batzuk ez daude, baina pentsatzen dut gaur hemen sortuko den eraginez bidera daitekeela.

IRATI: Egia esan, hori oso polita da. Eta oso polita da, era berean, idazle eta itzultzaile batek baino gehiagok testu bera itzultzea. Beharbada, narratiban zailagoa da, baina poesian askotan egin da. Adibidez, César Vallejo itzuli dute hainbat idazlek, eta ikus dezakezu zer soluzio desberdin eman dizkioten. Batzuk gogokoagoak ditut, beste batzuk ez horrenbeste, baina polita da hori ikustea. Gainera, horrela, idazle bezala esanda, ikusten da zein izan den problema, zer soluzionatu behar zuten, eta hori ere oso ariketa interesgarria da. Ados nago Angelekin. Alegia, ez bakarrik ekimen pribatuak existitzen direla. Badira bestelakoak ere. Eta oso gauza interesgarriak. Elkarrek klasiko feministak itzuli ditu berriki, oso ezinbestekoak zirenak eta gure bibliotekan falta zirenak, eta lehen aipatu dudana 1984 berrargitaratu dute, eta Susak Walt Whitman ekarri du Munduko Poesia Kaieren bidez. Herri bitxi bat gara, egia esan. Gai gara hori guz-

tia egiteko eta, era berean, Baudelaire 200 urtez ez itzultzeko. Ekimen pribatuak eta ekimen indibidualak beti izan dute leku bat euskal literaturan. Egia da asko daukagula egiteko klasikoekin. Literatura unibertsaleko klasikoen biblioteka asko dugu oraindik egiteko, eta komeni zaigu egitea. Soluzio berriak bilatzeko, ikusteko zer ari den egiten beste hizkuntza batzuetan, eta horren bidez geure lirika eta narratiba eta hizkuntza bera aberasteko. Cortázarrek egiten duen puntuazioaren iraultza, adibidez, nola egin genezake euskaraz? Nola ekartzen dugu euskarara ahozketasun hori? Nahi duguna itzul dezakegu literatura unibertsaletik, eta horrek ez du esan nahi «ea zer totxo tokatzen den orain», nahiz eta batzuetan horrela ikusten dugun. Uste dut horretan alemanak direla munduko onenak, dena alemanez irakurtzeko bokazioa dutelako. Horretaraino ez gara iritsiko, herri txikia garelako, baina uste dut ondo legokeela mentalitatea aldatzea, eta egiten duzuen ahalegin hori egitea, gero gizarteratzeko.

MANU: Amaituz joateko, orain, azalak ikusiko ditugu pantailan, aroka banatuta. Deseinu aldetik ere aldaketa handia izan du bildumak. Aipatzekoa da azken liburuetan izan den aldaketa; estilo frantsestua, esango genuke. Alain Urrutiarenak dira. Galdetu nahi nizueke nola ikusten duzuen bilduma gerora begira, eta ea proposamenen bat egingo zenuketen. Estetikoak ere bai, forma aldetikoak, bestelakoak... Nahi duzuen guztia.

IRATI: Lekuz kanpo legoke nik ezer esatea bildumaren osaketari buruz, nola egiten den, eta abar. Ahalegin handiarekin egiten

dela esan dezaket. Azalak ikusi nituenean, asko poztu nintzen Alain Urrutia diseinatzailer sartu zela ikustean, Olariaga koloso bat bada ere. Hemen, gure atzeko pantaila honetan, agertu dira *Gulliverren bidaiak* eta *Deabruaren hiztegia*, ezta? Bi liburu horiek oso dibertigarriak dira, eta egia asko eta gaiztakeria asko daukate, eta, adibidez, hori ez dakigu, eta ez dugu esaten, falta zaigulako, nik uste, literaturan eta, beharbada, geure buruarengan benetako konfiantza bat. [...] Liburuetara beldur gutxiagorekin hurbiltzen ikasi behar dugu, eta ez han idatzita dagoena autoritate baten ahotsa balitz bezala, derrigor men egitera behartzen gaituena. Hor dauden ahotsak lagunenak dira, eta laguntasun handiarekin hurbildu behar genuke esaten digutena entzutera. Naturaltasunez utzi behar genituzke liburuak gustatzen ez zaizkigunean, eta berotasunez hitz egin haietaz, gustatzen zaizkigunean. Batzuetan, igual, lotsa emango dio norberari esateak ez duela –adibidez– Txekhov irakurri. Ba, ez du irakurri. Bizitza laburra da, eta biblioteka unibertsalean beti geratuko zaizkigu irakurri gabe liburu gehiago irakurrita baino. Baina ez dago modu hoberik literatura gizarteratzeko elkarri maite dugun literaturaz zintzotasunez eta pasioz hitz egitea baino. Horrek sortzen ditu longsellerrak eta bestsellerrak, horrek asko balio du, ezin daiteke erosi, irakurleen errepublika hori ezin daiteke osorik erosi.

ANGEL: Orain ez naiz hasiko portada berrien bat proposatzen, kaleratu berri daudela. Dena den, portadarekin batera, barruko tipografia eta marjinak, hori ere diseinua da. Bakarrik azalekin geratzen gara, baina

badaude oso liburu gustagarriak irekitzen dituzun momentutik.

IRATI: Bai, badakit zientzia hori existitzen dela. Nik ez dut ezagutzen, baina bai, liburu batzuk erraz irakurtzen dira eta beste batzuk ez.

ANGEL: Bai, bilduma hasieratik jarraitu dugunok ikusi ahal izan dugu lehen 100 titulu horiek kanonikoagoak zirela, kanon literarioa ulertzeko modu batekoak. Gero, garaiak aldatu dira, eta ez dira beti izaten euskaraz ezinbestean egon behar duten liburuak, baizik eta askotan daude nik lehenago entzun ere ez nituenak. Deskubrimenduak dira, eta neurri batean horrela ere ari zara lehiatzen inizatiba pribatuarekin. Eta utzi diozue hain eurozentrismak izateari, eta horrek ere eskatzen du lanketa bat, begirada zabaltzea. Nik faltan botatzen dut jarraikortasun edo jarraipen bat. Beharbada ez delako tokia, baina Prousten lehen liburukia atera izana, liburu bakar bat, obra osoa zazpi liburuk osatua dagoenean, hori oso bitxia da, salagarria kasik (seguruenik preskribatu du, baina...). Hori, batetik, eta, zuek gorriaraztera etorri naizenez, literatura-generoaren ikuspegitik oso narratibozentrista da bilduma. Oker ez banago, liburu bakarra dago poesiarri eskainia, poeta katalanen antologia hura. Irakurrita hartzen dituzu arma berriak, ez? Baudelaireren *Gaitzaren loreak* beste non-

bait atera behar izan da. Beharbada, hau ez da tokia. Beharbada, blogetarako kontu bat da, ez dakit. Beauvoirren *Bigarren sexua*... Bilduman bada Beauvoirren beste bat, baina ez haren obra nagusi hura, eta hori ere... Garai bateko kontuak dira, baina tira. Laurence Sterneren liburu bat euskarari ekarri, eta hura ez izatea *Tristram Shandy*, baizik eta *Bidaia sentimental*a, zeina oso lan minorra den haren ibilbidean, ezezaguna, beste erdaretan inork ezagutuko ez duena segur aski. Pena da. Jakina, erronka ekonomiko handia behar da horretarako, baina Eusko Jaurlaritzak aurre egin behar zion.

IRATI: Batzuetan, uste dut mentalitatea ere badela. Pentsatzen dugu —ez da adibide ona, ze itzuli ez bada bolumenagatik ere bada, baina beno— Steinbeck, adibidez, *Las uvas de la ira* mundu guztiak ezagutzen duela, eta ez dugu hori ateratzen. Igual pentsatu behar dugu onena delako ezagutzen dugula, edo burura datorkigun lehena dela. Ez du zertan, baina... Dirulaguntzaren baitan sartu ahal izateko, karaktereka ordaintzen denez, oso mardulak diren liburuak ez dira kabitzen, eta Steinbecken kasuan ba...

MANU: Beno, ba amaitu zaigu denbora, eta hemen utzi beharko dugu. Eskerrik asko etortzeagatik, eta uste dut txalo bat merezi dutela gonbidatuek.

Resumen

El 29 de mayo de 2022, la escritora Irati Jiménez y el escritor y traductor Angel Erro participaron en la tertulia sobre la colección Literatura Unibertsala moderada por Manu López Gaseni y organizada por Literatura y EIZIE. Recogemos aquí un resumen de sus aportaciones.

Résumé

On 29 May 2022, Irati Jiménez and Angel Erro took part in the panel discussion on the collection Literatura Unibertsala moderated by Manu López Gaseni and organised by Literatura and EIZIE. In this issue of *Senez* we include a summary of their contributions.

Abstract

Le 29 mai 2022, Irati Jiménez et Angel Erro ont participé au débat sur la collection *Literatura Unibertsala*, animé par Manu López Gaseni et organisé par Literatura et EIZIE. Nous rapportons ici les propos de ce débat.